



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2016KO MAIATZAREN 6KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2016.05.06.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Angel Goñi Vergara jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Jose M.Almandoz Telletxea jn.:Arau Subsidiarioen aldaketa eskaera.
- 4.-Unai Azpiroz Nazabal jn.: Arau Subsidiarioen aldaketa eskaera.
- 5.-Bortzirietako Euskara Mankomunitatea: eskola erabiltzeko baimen eskaera.
- 6.-AEK: eskola erabiltzeko baimen eskaera.
- 7.-Nafarroa Oinez 2016: diru laguntza eskaera.
- 8.-Medikuaren etxeko bizitza alokatzeko prozeduraren onespena.
- 9.-Igantziko Udala: igerilekuko gastuetan parte hartzeko eskaera.
- 10.-Bordei buruzko arauen aldaketa.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2016ko apirilaren 8an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ANGEL GOÑI VERGARA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Angel Goñi Vergara jaunak, Atanborda alderdian, pinu insignisen probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (matarrasa, 4. poligonoko 120. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Angel Goñi Vergara jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-JOSE M. ALMANDOZ TELLETXEA JN.:ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA ESKAERA.

Ikusirik Jose M. Almandoz Telletxea jaunak aurkeztutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa, 5. poligonoko 236. lur zatia forestalatik emankortasun ertainekoa izatera pasatzeko.

Kontuan hartuz egiturazko aldaketa dela proposatutakoa.

Ikusirik Udaleko Arkitektoen aldeko txostena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 80., 79.2, 70. eta 71. artikuluetan ezarritakoari jarraituz,

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Jose M.Almandoz Telletxea jaunak sustatutako egiturazko aldaketa hasiera batez onartzea.

2) Aipatutako espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako egunkarietan argitaratuta, bizilagunek eta interesdunek egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak eta oharrak aurkez ditzaten.

4.-UNAI AZPIROZ NAZABAL JN.: ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA ESKAERA.

Ikusirik Unai Azpiroz Nazabal jaunak aurkeztutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa eskaera (Lur ez Urbanizagarriko araudien 10. artikulua aldatzeko).

Kontuan hartuz aldaketa hau xehekatua dela.

Kontuan hartuz aurkeztutako aldaketaren edukia eta beharrezkoa ikusten dela ondorengo bi puntu ere sartzea: eraikuntza mota horien solairu kopurua batetik bira igotzen da, beti ere, luraren malda %30a baino gehiago duenean eta eraikuntza mota horien fatxadetan leihoak irekitzen ahal dira zolatik 1,5 metroko altuera izanik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Unai Azpiroz Nazabal jaunari aurkeztutako aldaketa adierazitako baldintzekin aurkeztea berriro hasiera batez onartu ahal izateko.



5.-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA: ESKOLA ERABILTZEKO BAIMEN ESKAERA.

Ikusirik Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurkeztutako idatzia, eskolako gimnasioa uztailaren 4tik 29ra erabiltzeko baimena eskatuz Udaleku irekiak antolatzeko.

Kontuan hartuz udan eskolan hainbat obra burutuko direla.

Ikusirik Arantzako Eskola Kontseiluak igorritako idatzia honen inguruan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea bilera bat eginen dela gaia antolatzeko.

6.-AEK: ESKOLA ERABILTZEKO BAIMEN ESKAERA.

Ikusirik AEKk aurkeztutako idatzia, uztailan eta abuztuan eskola erabiltzeko baimena eskatuz barnetegiak antolatzeko.

Kontuan hartuz udan eskolan hainbat obra burutuko direla.

Ikusirik Arantzako Eskola Kontseiluak igorritako idatzia honen inguruan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) AEKri jakinaraztea bilera bat eginen dela gaia antolatzeko

7.-NAFARROA OINEZ 2016: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroa Oinez-ek aurkeztutako idatzia diru laguntza eskatuz 2016ko eguna antolatzeko.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2016. aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

8.-MEDIKUAREN ETXEKO BIZITZA ALOKATZEKO PROZEDURAREN ONESPENA.

Arantzako Udalak esleitu zuen medikuaren etxeko bizitza alokatzeko.

Ikusirik Nafarroako entitate lokalen Ondasunen Arautegia onesten duen 280/1990 Foru Dekretua. Horren arabera, ondasuna erabiltzeagatik esleipen hartzaileak urtean ordaindu beharreko prezioa ezin izanen da salmentako balioaren ehuneko 6a baino gutxiago izan.

Kontuan hartuz prezio horretan ezin izanen dela alokatu, gaur eguneko egoera ekonomikoa dela eta.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Medikuaren etxeko etxebizitza alokatzeko esleipen modua (lehiaketa) eta plegu administratiboa onartzea.

2) Interesatuak izena emateko epea irekitzea 2016ko ekainaren 30a arte.

9.-IGANTZIKO UDALA: IGERILEKUKO GASTUETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA.

Igantzikoko Udalak tarifa desberdinak ditu herriko igerilekura sartzeko Igantzin erroldatuak direnentzat eta kanpotarrentzat.

Aurreko urteetan Arantzako Udalak 1.000,00 euro ordaindu dio Igantziko Udalari aranztarrei Igantzin erroldatuak diren bezala kobratzeko. Orain 1.200,00 euro eskatzen du Igantziko Udalak.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna ez da ados agertu diru laguntza edo ordainketa hori egiteko.

Gainerako zinegotzien aldeko botoekin, ERABAKI DUTE:

1) 1.200 euro ordaintzea Igantziko Udalari, Arantzako herritarrek Igantziko herritarrek ordaintzen duten prezio bera kobratzeko baldintza pean.

10.-BORDEI BURUZKO ARAUEN ALDAKETA.

Arantzako Udalak, 2015eko martxoaren 4an egindako bileran, hasiera batez onartu zuen aldatzea Arantzako Arau Subsidiarioen lurzoru ez urbanizagarriko 17.3, 18. eta 19. artikulua, eraikinen ordenantza orokorraren 18., 21., 52., 53. eta 54. artikulua eta Arantzako arautegi orokorraren 21. artikulua.

Aldaketak jendaurrean daude.

Ikusirik egungo bordak zaharberitzeko proposatutako puntua.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Bordak kokatzen diren lur zatiak ez ixteko baldintza onartzea eta martxan dagoen aldaketaren barne sartzea.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du 2016ko 55 ebazpenetik 68. ebazpena arte.

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

13.-2015EKO KONTUAK: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2016ko martxoaren 18an egindako bileran, erabaki zuen 2015eko Kontu Orokorrei aldeko txostena ematea eta espedientea 15 egunez jendaurrean paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkezteko.

Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2015eko kontuen espedientea behin betikoz onartzea.

2) 2015eko kontuen espedientea Nafarroako Gobernura bidaltzea.

14.-ANIMSAKO AKZIOA EROSTEKO AKORDIOA.

Ikusirik ANIMSA enpresak proposatutako erosketa: akzio bat 60,00 eurotan.

Ikusirik horrek dituen abantailak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Akzio bat erostea ANIMSA enpresari berak ezarritako baldintzetan.



ARANTZAKO UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2) Akordio hau ANIMSA enpresari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn..



